

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Foru Gobernuak interesik gabeko maileguak eskainiko ditu alokairu-poltsara bideratutako etxebizitzak egokitzeko

*Programak 2017an ekarriko dituen berritasunen berri eman du Laparra kontseilariak, Tuterako Udala ekimen honetan sartzeko hitzarmena sinatu ondoren*

Astelehena, 2017.eko urtarrilak 23

Interesik gabeko 12.000 euro arteko maileguak higiezinak egokitzeko, jabeekideen erkidegoko gastuen zati bat ordaintzea eta energia-eraginkortasunaren ziurtagiria ordaintzea dira alokairurako etxebizitza-poltsaren 2017rako berritasun nagusiak; Poltsa hori Nafarroako Gobernuak sustatzen du NASUVINSA sozietate publikoaren bitartez.

Halaxe azaldu du gaur Foru Gobernuko Eskubide Sozialetako lehendakariorde eta NASUVINSA sozietate publikoko presidente Miguel Laparra jaunak, Tuterako programa horretan sartzeko hiri horretako Udaleko alkate Eneko Larrarterekin hitzarmena sinatu ondoren.

Tutera alokairu-poltsan sartzeko akordioaren helburua da Nafarroako Gobernuak eta Tuterako Udalak lankidetzan jardutea udalerrri horretan hutsik dauden etxebizitzak antzemateko eta mugiarazteko, etxebizitza horiek modu eraginkorrean okupatu eta egon daitezkeen etxebizitza-eskatzailen esku jar daitezkeen.

Beste neurri batzuen artean, etxebizitzaren bulego bakarra sortzea jasotzen da, etxebizitza babestuen bizigarritasunarekin, birgaitzeekin eta errentamenduarekin lotutako kudeaketak zentralizatzeko helburuz.

Adierazi bezala, hitzarmenaren sinatze-ekitaldian, Laparra lehendakariordeak iragarri du hainbat berritasun dakartzala Alokairu-poltsaren programak 2017. urte honetarako, erakargarriagoa izan dadin beren etxebizitza errentan eman nahi duten etxejabeentzako.

Lehenengo berritasuna da poltsako etxebizitzen jabeekideen erkidegoko gastuak NASUVINSA sozietateak hartuko dituela bere gain, hileko 50 euroko mugarekin.

Bigarren neurria izango da interesik gabeko finantzazioa eskaintzea etxebizitza Alokairu-poltsan sartu ahal izateko beharrezkoak diren



Laparra lehendakariordea, Tuterako Udalarekin hitzarmena sinatzen.

egokitzapen-gastuetarako –12.000 euro gehienez–, errentamenduko ondorengo errentekin konpentsatuko direnak.

Azkenik, NASUVINSAk hartuko du bere gain Alokairu-poltsarako aurkezten diren etxebizitzetarako energia-eraginkortasunaren ziurtagiria prestatzeko zeregina ere, ziurtagiri hori aldeztatik ez badute, edo bost urteren ondoren etxebizitza berriro eskaintzen denean poltsarako eta, kasu honetan ere, ziurtagiririk ez duenean.

Halaber, alokairu-poltsa handitzeko zabalkunde-ekintzak egitea aurreikusten dute; hala nola posta elektronikoak bidaliko zaizkie Nafarroako Gobernuak langileei horri buruzko informazioa emateko, gutun pertsonalatuak ustez okupatu gabe dauden etxebizitzaren titularrei eta etxebizitzaren okupazioari buruzko ikuskapenak egingo dira, ez horrenbeste zehapen-helburuekin, poltsan sar daitezela saiatzeko baizik.

## **Tuterako Udala**

Hitzarmen hori sinatuta, Tuterako Udala Nafarroako Gobernuak kudeatzen duen Alokairurako Etxebizitza-poltsa programaren erakunde laguntzailea da; horrek esan nahi du herritarrei programari buruzko informazioa emateko eta kudeaketak arintzeko konpromisoa hartzen dituela bere gain.

Halaber, Udalak aztertuko du Alokairu-poltsaren bitartez beren etxebizitza errentan ematen duten etxejabeek zerga-salbuespenen bat edo zuzeneko laguntzaren bat aplikatzeko aukera, eta udalerrian dagoen errentamenduko etxebizitzaren eskaria zenbatuko du, eta babestutako etxebizitzaren eskatzaileen errolda baten bitartez bideratuko du.

Tuterako Udalaren konpromisoaren artean, gainera, hutsik dauden etxebizitzak antzemateko mekanismoak aztertzea dago, jabeek etxebizitza horiek okupatzeko aukerak proposatzeko, eta interesa duten etxejabeek beren etxebizitzak eskaintzeko kudeaketak errazteko helburuz; etxejabeek NASUVINSAk edo udaletxean bertan aurkez ditzakete beren eskaintzak.

NASUVINSA sozietateak berak, Udaleko langileek edo adostutako besteren batek egin ditzake eskaintako etxebizitzaren azterketa eta ikuskapena. Halaber, erakunde biek kudea ditzakete etxebizitzak errentan hartzeko interesa dutenen bisitak dagozkien etxebizitzetara.

Maizter izango direnek udaletxean bertan aurkez dezakete kontratuak sinatzeko zein, babestutako etxebizitzaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera jaso dezaketen errentamenduagatik diru-laguntza eskatzeko edo berritzeko beharrezko dokumentazioa.

Hitzarmenak lau urteko iraupena izango duela aurreikusten da –luza daitekeena–, eta herritarren artean beren etxebizitzak birgaitzeko eta egoera onean mantentzeko ardura sustatzeko konpromisoa ere hartzen du Udalak hitzarmen horren bitartez; bai eta Eraikinen Ebaluazioaren Txostena garaiz eta dagokion forman aurkezteko eta Etxebizitza Legeak birgaitzeko jarduerari ematen dion aldaketa bultzatzeko ere, aurrez zeudenak baino zenbateko handiagoko laguntza berrien bitartez.

## **Programaren bermeak**

Gaur iragarritako berritasunez gain, gogorarazi behar da honako berme hauek eskaintzen dituela Alokairu-poltsak:

errenta ziur eta dagokion garaian kobratzea; etxebizitza egoera onean itzultzea eta arrisku anitzeko etxebizitza-asegurua (edukitzailea) kontratatzea (enpresa publikoaren kontura), etxebizitzan gerta litezkeen ezbeharrak estaliko dituena.

Beren etxebizitzak programa horretan sartzeko interesa duten etxejabeek 848 420601 telefono-zenbakira

deituta, Nafarroako Gobernuaren [www.vivienda.navarra.es](http://www.vivienda.navarra.es) webgunean eta Tuterako Udalaren bulegoetan edo Etxebizitzak Zaharberritzeko Bulegoan jaso dezakete informazioa.

NASUVINSA enpresa publikoa arduratzen da maizterrak bilatzeko, bitartekaritzako eta kontratuak egiteko kudeaketez. Eta maizterrek errentaren % 90, 75, 50 edo 25eko diru-laguntzak jasotzeko eskubidea izan dezakete, dituzten diru-laguntzen arabera.

Programa horrekin, Eskubide Sozialetako Departamentuaren helburua da alokairuan babestutako etxebizitza gehiago eskaintzea, Alokairu-poltsari atxikitako etxebizitza kopurua 400 bat etxebizitzatan handituta legealdi honetan, era horretan, hazten doan herritarren eskaria asetzeko. Gainera, jasangarritasun-neurri garrantzitsua da etxebizitza hutsak merkatuan jartzea, gutxiegi erabiltzen den baliabide bat berrerabiltzen eta hiriguneak dinamizatzen laguntzen baitu.